

**20**  
**24**  
urtekaria

**IRUTXULOKO  
HITZA**

# Harpidetu zaitez

**H** IRUTXULOKO  
**HITZA**-ra

**HITZA** *kide*

izateko

**11**

**arrazoi**



1 DONOSTIAKO AKTUALITATEAREN BERRI IZANGO DUZU.



2 IRUTXULOKO HITZA OSTIRALERO JASOKO DUZU.



3 EUSKAL KULTURA ZAINDUKO DUZU.



4 DESKONTUAK, SARIAK ETA ZOZKETAK IZANGO DITUZU.



5 DONOSTIAKO AUZO ETA HERRIEI AHOTSA EMANGO DIEZU.



6 KALITATEZKO INFORMAZIOA JASOKO DUZU.



7 HIZKUNTZAREN BIZIBERRITZEA SUSTATUKO DUZU.



8 PROIEKTUA INDARTUKO DUZU.



9 ERRENTA AITORPENEAN KENKARIA IZANGO DUZU.



10 HIRIKO EKITALDI ETA JAIEN BOZGORAILU IZANGO ZARA.



11 DONOSTIARROK BEHAR DUGULAKO.



[Irutxulo.hitza.eus/hitzakide/izan](http://Irutxulo.hitza.eus/hitzakide/izan)



943-46 72 36

# Donostiari Buruz Kontatzen Ez Dizutena

Garaiak gu baino azkarrago aldatzen dira batzuetan, eta hor gabiltza, albistearen atzetik ulertu nahian beti atzo gertatutakoak.


Batzuetan, aurreratzeko gaitasuna du kazetaritzak, baina, hala ere, alferrik, aurreratu nahi duen tendentzia ekidin ezina izan ohi da dagoeneko. Alegia: ohartarazten daramagun arren, joera erreakzionarioak gora doaz kaleetan, eta ez dira bat ez bi izan aurten jaso ditugun erasoak, kale egoeran dauden migratzaileen kontra. Sare sozial digitalen zaratak eta sare sozial fisikoen desegiteak egiten du dena: beti bezala, boteretsuenen amua jan, eta ahulenen kontra egiteko aprobetxatzen ari dira mundu osoan gora doazen eskuin muturrak —batzuk, itxuraz, ez horren muturrekoak—.


Krisian gaudela gauza jakina da —edo, zer, krisia soilik al da banketxeak erreskatatu behar direnean?—, baina egiten dugu hala izango ez balitz bezala. Betiko arazoei betiko soluzioak bilatu beharrean, uste dugu begirada aldatzen hasteko ordua dela. Euskararen alde egiteko eta bizi baldintza duinak bizitzeko donostiartasun berri bat eraikitzen hasteko unea da. Reala eta Kontxa erdigunean edukiko ez dituen, eta bertsotan egingo duena, eta ramadana egingo duena, eta Emakumeen Etxearen defentsan arituko dena, eta espekulazioaren eta pobreziaren kontra, eta kulturaren eta dantzaren alde.


Tokiko kazetaritza aldatuz doa. Hogeit urte beteko ditugu aurten IRUTXULOKO HITZA-n, eta inoiz baino gehiago, eta beti bezain beharrezkoa den tokiko eredia garatzen ari gara. Elkarlana oinarri, auzoetatik hasita, beste inork garatzen ez duen begirada eta gertutasuna da gure lanabesa. Batzuetan hobeto, besteetan okerrago, baina Donostia izan denaren eta izango denaren kontakizunari beste zapora, begirada eta ostikoa emateko ari gara lanean.

Ba, hori. Batzuek zarata egiten dutela institutuko gaiztotxoaren plantak egiten, baina guk, urte osoan, kontatzen ez dizuten, eta beren-beregi ezkututzen duten Donostia erakusteko lan egiten dugu. Donostia asko daudelako hiri honetan. Eta askoz gehiago ditugulako oraindik sortzeko eta kontatzeko. Donostiari Buruz Kontatzen Ez Dizutena da, hain zuzen, etortzeko dagoena.

**H** IRUTXULOKO  
**HITZA**

 Ametzagaña, 19, behea, 20012 Donostia

 943-46 72 36

 donostia@hitza.eus

**Irutxulo.hitza.eus**

**Argitaratzailea:** Donostiako Hedabideak S.L.

**Lege Gordailua:** SS-226-05

**Diseinua eta maketazioa:** Oier Arribas Ciria

**Zuzendaria:** Beñat Parra Rodriguez

**Erredakzioa:** Inaxio Esnaola Aranzadi,  
Olatz Balda Sagarzazu, Sara Ibarguren Etxeberria,  
Xalba Ramirez Cruz

**Kudeatzailea:** Naike Usabiaga Urruzola

**Publizitatea:** Aizpea Aizpurua Arroio  
aaizpurua@hitza.eus · 688-60 71 08

**Diseinatzailea:** Oier Arribas Ciria

**Sustapena:** Andrea Bosch Alfaro



Donostiako Hedabideak SL:



BERTAKO  
HEDABIDEAK



Proiektua diruz laguntzen duten erakundeak:



Gipuzkoako  
Foru Aldundia



Jendetza batu zen Kaleko Afari Solidarioen debekuaurrean, urriaren. XALBA RAMIREZ CRUZ

## Kaleko afarien debekua, LQNTCDD eta arrazakeria gora

**U**rteko gai potoloenetako bat izan da, zalantzarik gabe, segurtasunari loturiko eztabaida eta horrekin lotutako arrazakeriaren eta diskurtso autoritarioen gorakada. IRUTXULOKO HITZA-k urte osoan zehar hainbat albiste eta erreportaje jorratu ditu arazoari ertz gehiago bilatu asmoz. Hala, martxoaren 14an, hainbat eragilek salatutako «Polizia operazio arrazista» jaso genuen: «Espainiako poliziak, Ertzaintzak eta Udaltzaingoak elkarrekin egin dute operazioa, atzerritarren bulegoaren operazioa dela azaldu dute. 56 lagun aurkitu zituzten erakinaren barruan, eta 29 Espainiako Poliziaren etxera eraman zituzten identifikatzera». Maiatzaren 9an, bideo bat argitaratu genuen,

hainbat ertzainek gazte magrehtar bat bortizki jazarri eta portale baten barrura sartzen zutela erakutsiz. Martutenen, herritar talde batek hainbat kartel jarri zituen auzoan, migratzaileen kontrako biolentziarako deia eginez eta «buruan tiro puta bat» emateko eskatuz. Abuztuan, Udaltzaingoak gizon bat atxilotu zuen, Alderdi Ederren pistola faltsu batekin oinezkoak mehatxatzeagatik. Irutxuloko Hitzak argitaratu zuenez, gizon hori kale egoeran zeuden gazte magrehtarrek mehatxatzen aritu zen.

Testuinguru horretan, Lo Que No Te Cuentan de Donosti taldea zabaldu zen, Instagramen lehenik, eta Telegramen ondoren. Bestek beste, lapurreta txikiekin kezkatuak, kale egoeran dauden magrehtarrek

dituzte jomugan. Talde horretan magrehtar jatorriko jendearen argazkiak zabaltzen dira, baita ekintzaile antirrazistenak eta kazetariak ere. Talde erreakzionario honek elkarretaratzea antolatutako Egiako Kaleko Afari Solidarioen aurrean urriaren 21ean, hainbat istilu sortuz. Alderdi Popularreko hiru zinegotziek parte hartu zuten mobilizazioan eta ekintzaile antirrazisten kontra oldartu ziren, hainbat irainduz. Albisteak izugarritzko oihartzuna izan zuen, eta Donostiako Udalak, biharamunean, erabaki polemiko bat hartu zuen: Egiako Kaleko Afari Solidarioak debekatzea. Horretarako, udaltzainen patruila bat bidali zuen Egiako afariak banatzen diren lekura, ahoz abisatuz debekatuta geratzen zela

hortik aurrera ekintza solidarioa Egian egitea. KASEk prentsaurreko jendetsua egin zuen esanez afariekin jarraituko zuela, eta, egun horretatik aurrera, Egiako taldeari Gipuzkoa plazan banatzen dio afaria. Euskal Herri osoan zabaldu zen debekuaren oihartzuna, eta aste horretan bertan, manifestazio jendetsua egin zuten hainbat eragile antirrazista eta antifaxistek debekua salatuz.

Izan ere, arrazakeriaren eta faxismoaren gorakadaren aurrean, hamaika izan dira sortu diren ekimen berriak hirian. Martutenen eta Herreran, auzo elkarteek eta bizilagunek «soluzio integralak» eskatzeko elkarretaratzeak egin zituzten. Egian, otsailean, Guztiontzako Egia Auzotar Sarea sortu zuten, «arrazakeriari eta Poliziaren gehiegikeriei aurre egiteko sarea». Abuztuan, hiriko 30 eragile batu, eta prentsaurreko jendetsua egin zuten, arrazakeriaren aurrean antolatzeke deia eginez. Eragile hauek batuta, LQNTCDD taldeari aurre egin zioten azaroaren 16an, eta talka horren ondorioz, talde erreakzionarioak elkarretaratzeak egiteari utziko ziola adierazi zuten. Garaipen gisa aurkeztu zuten taldeek, baina errealitatea da erroko arazoan aurrerapausorik ez dela izan: pobreen kontrako gerra irekian izan da hiria 2024an. 2025erako tresna gehiago izango al ditugu polizia biolentziatik haratago? ●



LQNTQDD taldearen kontra egin zuten hainbat ekintzaile antifaxistek.  INAXIO ESNAOLA



Guztionezako Egia sortu zen otsailean, arrazakeriari eta poliziaren indarkeriari aurre egiteko.

## BARNE DISEINUA ALTZARIAK

Ametzagaña 7  
Egia · Donostia  
[www.apal.eus](http://www.apal.eus)  
943 320400  
[info@apal.eus](mailto:info@apal.eus)







## Feminismoak aurten ere mobilizazio jendetsuak

**M**artxoaren 8an, milaka pertsona manifestatu dira aurten ere Donostian, mugimendu feministak deituta. Zaintza jarri dute erdigunean, *Dimentsio guztiak*, *Gure bizitzekin negoziatorik ez!* eta *¡Haceos cargo ya!* lelopean. Nabarmendu dute «emakume, trans, bollera, migratu eta arrazializatuak etengabe zapaltzen dituen munduan justizia exijitu eta horien ahotsa entzuna izan dadin» mobilizatu direla. «Lan munduan zein dohainik eta aitortzarik gabe egiten ditugun zaintza lanetan gure lan indarra esplotatzen duen sistema zisheteropatriarkal, kapitalista, arrazista eta kolonialari aurre egin beharra diogu». Azaroaren 25ean ere manifestazio jendetsuak izan ziren hirian, bai mugimendu feministak deituta, baita mugimendu sozialistak antolatuta. Bestetik, aurtengo otsailean, Berdintasunerako Emakunde Saria eman zioten Mariasun Landa Etxebeste idazleari, «neskato, nerabe eta emakumeen berdintasun eta duintasunari egindako ekarpen sortzaileagatik».

## Patxi Ezkiagak haurrei egindako sexu abusuak, argitara

Haurra zela, Patxi Ezkiaga idazle, irakasle eta fraide legorretarrak (1943-2018) sexu abusuak egin zizkiola salatu zuen Marisol Zamora La Salleko ikasle ohiak ekainean. Salaketa horren ostean, gutxienez hemezortzi izan dira pederastaren kontrako salaketak, guztiak 1974 eta 1996 urte bitartean. Biktimek diotenez, 8 eta 17 urte bitarteko haur eta nerabeek jasan zituzten abusuak, irakasleak eskolan bertan zuen logelan edo Izaban antolatzen zituen udalekuetan.



## Eraso matxistak beste urte batez, Txomiñeneko kasu aipagarriarekin

Aurten ere, asko izan dira emakumeen kontrako sexu eraso eta mota orotako jazarpenak. Hainbat bortxaketa salaketa izan dira, hala nola, Loiolan, Amaran eta Intxaurren. Indarkeria matxista kasu larrietako bat Txomiñenean jazo da uztailan, ertzain batek bere emaztea labanaz eraso egin ostean. Ertzainak lehendik ere bazituen salaketak, eta legeari iruzur egin asmoz, sexu aldaketa egin zuen. Edonola, epaileek indarkeria matxista gisa epaituko dute.

## Desokupa enpresa faxista Egian

Desokupa44 enpresaren izenean identifikatu ziren bi gizon Egiako Karmengo Ama kaleko 44. zenbakian okupatuta zegoen etxe baretara joan ziren maiatzean. Irain homofobikoak eta sexistak egin zituzten, eta argia eta ura moztuko zietela esan zuten. Ordubetera 30 kiderekin itzuliko ziela mehatxatu arren, okupak babestera hurbildu ziren dozenaka auzokide eta ez zuten etxea hustu.



## Saretxek alokairu greba abiatu zuen uztailean

Saretxe Groseko Etxebizitza Sindikatuak agerraldia egin zuen uztailean, Azora putre funtsaren aurka garatzen ari diren borrokaren berri emateko, Auzoko hainbat maizterrek, sindikatuaren babesarekin, «alokairu greba» abiatu zuten, ustezko ordainketa eza estaltzeko aseguru ordaintzeari uko eginez. Azora putre funtsarekin edo Inmobiliaria Vascongadarekin negoziatzeko prest agertu zen Saretxe etxebizitza sindikatua, baina gaur-gaurkoz egoerak berdin jarraitzen du.

## Istiluak Anoetan

Amaia Zabarte, 44 urteko irundar realzaleak Ertzaintzaren eraso jasan zuen martxoaren 5ean. Foam jaurtigailu batek kolpatu zuela salatu zuen berak, nahiz eta Jaurlaritzak hori ukatzen duen. Epailleek, orain, parte hartu zuten ertzain guztiak identifikatzeko eskatu du. Anoeta inguruan asko izan dira aurten istiluak, batez ere, Europako txapelketetan. Bizilagunak kokoteraino daudela adierazi dute behin eta berri.





# Kirol Txartela 2025





donostia **KIROLA**



## Turismoa gora eta gora, beste urte betez

**B**izilagunekin plataformak deituta, hiri eredia eraldatu eta herritarren bizi baldintzak erdigunean jar daitezten eskatu dute ehunka lagunek. Etxebizitzaren eskasia eta garestitzea salatu dute, bai eta egoera horren aurrean, Donostiako udalak izan duen jarrera ere. Bizilagunekinek zabalduko datuen arabera, 2023ko irailetik 2024ko abuztura, 1.279.000 bisitari izan ditu Donostiak. Ostatu turistikoei dagokienez, hauek dira datuak: 1.381 etxebizitza turistiko daude hirian, 144 logela turistiko, 167 hotel –126 izar batekoak edo bikoak eta 41 hiru izarretik gorakoak— eta 27 aterpetxe eta bestelako ostatu turistiko. Hotelen eta aterpetheen kasuan, alderaketa adierazgarriak egin ditu plataformak. Alde batetik, 2014tik 2024ra, %56 igo da hotelen kopurua hirian: %42 izar bat eta bi artean dituztenen kasuan eta %128 hiru izarretik gora dituztenen kasuan.

## Cementos Rezolako greba eta beste hainbat borrokaldi

Lan gatazkaz josita egon da urtea. Handienetako bat, Cementos Rezolako langileek ekainetik aurrera egin zuten greba, kale-ratzeen kontra. Azkenean, irailaren hasieran, akordioa lortu zuten enpresarekin eta hainbat aurre erretiro eta birkokatze adostu zituzten. Bestetik, hainbat borrokaldi egin dituzte base-ritarrek, Dbuseko langileek, hondartzako sorosleek eta Aspaceko langileek, esaterako.




## Palestinarekin elkartasunak ez du etenik

Beste urte batez, tamalez, Donostiak manifestazio jendetsu ugari egin behar izan ditu Palestinaren alde eta genozidioaren aurka. Jendetsuena martxoan izan zen, kulturagileek antolatu zuten martxa Alderdi Ederretik hasi eta Haizearen Orraziraino. Bertan, milaka lagunek ekimen sinboliko bat egin zuten, Laboaren *Lekeitio* bat entzun bitartean lurrean etzanez. Irudiak munduari bira eman zion.



## 189.093 biztanle ditu Donostiak, hiriaren historiako kopururik handiena

189.093 biztanlerekin amaitu zuen Donostiak 2023a, hau da, iaz baino 350 biztanle gehiagorekin (%0,18 gehiago). Hiriak historian izan duen biztanle kopuru handiena da, datu demografikoen aurkezpenean azaldu zutenez. Biztanleen %52,7 emakumezkoak dira, eta %47,3 gizonezkoak. Nazionalitate atzerritarra duten 19.316 pertsona bizi dira Donostian, 2022an baino %5,92 gehiago (+1.080). Hortaz, atzerritarrak hiriko biztanleen %10,2 dira (2022an %9,7 ziren), eta 135 herrialdeetatik etorri dira.



## Pobrezia gora hirian: bost familiatik batek gizarte zerbitzuen arreta jaso du

Donostiako Udalak 32.560.906 euro bideratu zituen iaz gizarte politiketara, 17.806 familiari arreta emateko eta 22.196 baliabide kudeatzeko. Bost familiatik batek jaso zuen 2023an gizarte zerbitzuen laguntza, eta laguntza hori jaso zuten familien laurdenak estreinakoz jaso zuen. Hestia Eguneko Zentroari dagokionez, 1.213 pertsonari arreta eman zieten bertan egindako jarduketetan, 55i kaleko jarduketetan eta 221i esparru komunitarioetan. Azken zenbaketaren arabera, 413 lagun bizi dira kale egoeran Donostian.

## Bularreko minbiziaren aurka

Bularreko Minbiziaren Aurkako Nazioarteko Eguna baliatuta, Izan Inurri elkarteko kideak kalera atera ziren urrian, arrosa baino, bularreko minbizia marroia dela aldarrikatzeko. Lagun eta senideen babesean, Bulebarra hartu zuten, egun horretan egiten diren *pinkwashing* ekitaldiak arbuaiatu eta gaixotasuna pairatzen duten emakumeen bizi kalitate hobea aldarrikatzeko: «Ez egun honetako jai giroak, ez alde guztietatik ikusten diren zinta arrosek ez gaituzte islatzen. Ez gara ausartak. Bizi kalitatearekin bizi nahi duten emakumeak gara».





# ILAZKI

## EUSKALTEGIA

HABEK diruz lagundua

**HABE** 

Zabaldu zure mundua

www.ilazki.eus · Konstituzio plaza, 5 · 943-42 49 10 · ilazki@ilazki.eus



## Donostiako kaleak hartu ditu 23. Korrikak

**K**orrikaren 23. edizioa martxoaren 14an abiatu zen Irundik (Gipuzkoa), eta 24an bukatu zen Baionan (Lapurdi), 2.792 kilometro egin ondoren. Donostiara martxoaren 23an iritsi zen, eta Martutenetik sartu zen, arratsaldean.

Lau ordu inguru behar izan zituen Korrikak hiriko ia auzo guztiak zeharkatzeko. Martutene ez ezik, lekukoa eskuz esku eraman zuten auzo hauetan, hurrenez hurren: Amara, Erdialdea, Antigua, Ibaeta, Añorga, Gros, Parte Zaharra, Erdialdea berriz ere, Egia, Bidebieta, Intxaurren eta Altza.

IRUTXULOKO HITZA-k ere bat egin zuen 23. Korrikarekin, eta Erdialdeko Idiakez kalean hartu zuen lekukoa, 21:30 inguruan. Olatz Balda Sagarzazu kazetariak eta Irati Azpeitia Latorre Hitzakideak eraman zuten lekukoa, eta haien atzean joan zen lantaldea ere, Korrikara batu ziren ehunka lagunez inguratuta.

### «Euskararen kontrako oldarraldiak ez du etenik»

**E**uskararen azken epaiak salatzeke, elkarretaratze jendetsua egin zuen irailean euskalgintzak Alderdi Ederren, Bagera Euskaltzaleen Elkarteak eta Euskalgintza-ren Kontseiluak deituta. «Euskararen kontrako oldarraldiak ez du etenik», salatu zuten, eta hizkuntza politikan «azken hitza» epaitegiek dutela. Izan ere, aurten euskara eskakizunen aurkako hainbat epai izan dira, eta horietako bik Donostiari eragiten diote.

Martxoan, Espainiako Auzitegi Gorenak ez zuen onartu Uliaspiko euskara eskakizunen kontrako sententziari jarritako helegitea. Irailean, berriz, Donostian udaltzain izateko B2 mailako euskara eskakizuna «diskriminatzailea» dela ebatzi zuen EAEko Auzitegi Gorenak. Horrela, Administrazioe-kiko Auzien Donostiako 3. Epaitegiak urtarrilean



plazaratutako epaia berretsi zuen. Udaltzain bikote bakoitzeko kide batek euskara jakitea «nahikoa» dela ebatzi zuten. Donostiako Udalak helegitea jarri zion, baina Gorenak baztertu egin zuen.

## Plazara Goaz elkarteak 25 urte bete ditu

Intxaurrendoko Plazara Goaz euskara elkarteak 25. urteurrena borobildu du. Urtean zehar hainbat jarduera antolatu ondoren, bereziana abenduaren 3an egin zuten, Euskararen Egunean. Urtetan bidelagun izan dituztenekin elkartu ziren Intxaurrendoko Kultur Etxean, eta elkarrekin inauguratu zuten euskara elkartearen historia jasotzen zuen argazki erakusketa. Urtea bukatu aurretik, lehen Bagera Saria eskuratu zuen euskara elkarteak, 25 urteotan egindako lana eskertzeko. Aurrera begira, lanean jarraitzeko gogotsu daudela adierazi dute.



## Txomiñeneko euskaltzaleen taldea sortu dute

Zenbait hilabeteko lanaren ostean, Txomiñeneko talde batek Behin Batean euskaltzaleen elkarte bat sortu du, auzoan euskara hauspotzeko: «Behin batean Loiolan erromeria zen, Bilintzek gogorarazi zuenez. Behin batean Loiolan auzo txiki bat ere bazen: Txomiñenea», adierazi zuten aurkezpenean. Hain zuzen, ideia horri tiraka izendatu dute elkarte bat. Behin Batean Txomiñeneko euskaltzaleen taldeak euskara sustatu eta biziberritzeko helburua du eta, horretarako, askotariko jarduerak antolatuko ditu auzoan.

## Joan Mari Irigoien, Altzako hormetan bizirik

Altzan Joan Mari Irigoien idazlearen omenezko horma irudi eder bat egin zuten abuztuan. Altzatarra iazko maiatzean zendu zen, eta oso maitatua zenez, lagunek omenaldi berezi bat eskaini nahi zioten. Altzako kaskoan dago horma irudia, Txapiñene kalean. *Hi bizi haiz, hi!* izenburua du lanak, eta Nestor Otaño artista pasaitarrak egin du. Horma irudi honez gain, beste hainbat omenaldi egin dizkiote Irigoieni. Esaterako, Euskaltzaindiak hildako euskaltzainak omendu zituen urtarrilean, tartean, idazle altzatarra.



**Oiartzun**

● Gozotegia: Ijentea, 2 - Tel.: 943-42 62 09 ● Lantegia: Jai Alai, 6 - Tel.: 943-29 09 07  
 ● www.pasteleriaoiartzun.com ● obrador@pasteleriaoiartzun.com

**PLATERO**  
 taberna

## Jai giroa ez da faltatu auzo eta herrietan

Jaiak ezinbestekoak dira herria bizirik mantentzeko, jaietan ikusten delako zer garen eta zer izan nahi dugun. Donostiarrek oso argi dute hori, eta, beste urte batez, jai ederrak ospatu dituzte gure auzo eta herri gehien-gehienetan. Parrandez, oturuntzez, kontzertuez, jolasez edo herri kirolez disfrutatzeko parada izan dute donostiarrek urte osoan zehar, eta orrialde hauek dira horren erakusgarri. Hala ere, gure webgunean askoz argazki gehiago dituzue ikusgai, urtearen errepaso sakonagoa egiteko.

Antiguako sansebastianak



Ibaetako jaiak



Bidebietako Txanpontxo jaiak



Morlansko jaiak



Larratxoko jaiak



Herrerako jaiak



Antiguako sanjoanak



Buenavistako jaiak



Amara Berriko sanjoanak



Intxaurrendoko sanjoanak



Oletako sanjoanak



Igeldoko San Pedro jaiak



Intxaurre jaiak



Altzako San Martzial jaiak



Añorgako Karmengo jaiak



Kaiko Karmengo jaiak



Groseko Zipotz jaiak



Amara Berriko Karmengo jaiak



Zubietako herri jaiak



Amarako jaiak



Loiolako jaiak



Intxaurreko Zaharreko jaiak



Añorga Txikiko jaiak



Txomiñeneko jaiak



Aieteko jaiak



Egiako Porrontxo jaiak



Jolastokietako jaiak



Loiolako Erriberako San Festo jaiak



Altzako Arriaga Serafinak jaiak



Amara Berriko Superxagu jaiak



Martuteneko jaiak





### Hogei urte bete ditu Aieteko Gero Axular dantza taldeak

Gero Axular dantza taldeak hogei urte bete ditu. 2004ko ekainaren 28an sortu zuen Aieteko Axular Lizeoko guraso talde batek, euskal dantzako eskolen jarraikortasuna bermatzeko. Urteurrenaren harira, hainbat jarduera antolatu dituzte; besteak beste, *20 urte Gero-ago* emanaldia egin zuten Tolosako Leidor antzokian, apirillean. Horrez gain, Aste Nagusian Plaza Berrian eskaini zuten ikuskizuna, eta urrian, Easo abesbatzarekin aritu ziren Viktoria Eugenia antzokian. •



### Altzako udaletxe zaharra herritarrek erabiltzeko zabaltzea eskatu dute

Donostiako Udalak Altzako Harrobieta plazako 17. zenbakiko instalazioetara lekualdatu zuen Ekialdeko Barrutiaren egoitza apirillean, eta ez zuen argitu zer gertatuko zen San Martzial plazako eraikinarekin. Hori dela eta, udaletxe zaharrak itxita eta hutsik jarraitzen du, eta, horrekin kezkatuta, eraikinari erabilera bat emateko eskatzen hasi dira Altzako Historia Mintegitik, helburu argi batekin: herriak berea den etxea erabili ahal izatea. •



### Antiguako frontoia zabaldu dute berriz, berritze lanak amaitu ostean

Antiguako frontoia konpontzeko eta berritzeko lanak ekainean amaitu zituen. 2023ko azaroan abiatu zituzten lan horiek, izan ere, 2021eko aurrekontu parte hartzaileetan boto gehien jaso zituen proiektua da. Zehazki, 553 boto jaso zituen proiektu horrek. Frontoia lanetarako itxi aurretik, Gero Arte Frontoia! jaialdia egin zuten bizilagun askok Antiguan, eta, zortzi hilabeteren ostean, zabaldu zuten berriz, itxura berrituarekin. •



### 50 urte bete ditu Añorgako Atotxa Erreka elkarteak

Mende erdi bete du Añorgako Atotxa Erreka elkarteak aurtan. 1970eko hamarkadan Añorga Txikin eraiki zituzten etxe berrietako hainbat bizilagunen ekimenez sortu zen. 1974ko urtarrilaren 19ko 23:50ean atera ziren estreinakoz danborradan, eta 35 bat urtez, bi aldiz atera izan ziren jotzera: behin modu ofizialean bandera igoz, eta beste behin modu ez ofizialean bandera jaitziz. 2024ko bandera igoeran, Gaztelubiderekina batera izan ziren Plaza Berriko oholtzan. •



### 'Atotxa-Egia' liburua aurkeztu du Kike Otaegik

Kike Otaegi Arizmendik *Atotxa-Egia: Harresiz kanpoko ingurune batetik hiri espazio batera* liburua aurkeztu zuen azaroan. Liburuak Atotxa-Egia auzoaren historia zeharkatzen du XIX. mendeko 60ko hamarkadatik XX. mendeko 70eko hamarkadara arte. Alegia, auzoaren ibilbide historikoa eskaintzen du, Donostian, XIX. mendeko harresiz kanpoko eremua izatetik XX. mendean espazio urbano kontsolidatua izatera igaro arte. •



### Groseko zaldiko-maldikoa itxi dute, 115 urteren ostean

Groseko Zuberoa plazako Txuri Urdin zaldiko-maldikoa itxi dute, 115 urtez biraka aritu ostean. 1900 eta 1910 artean eraiki zuten, eta hasiera batean elektrizitaterik ez zuenez, langile batek eskuz birarazi behar izaten zuten. Patxi Vizcaino jabeak saldu egin behar izan du zaldiko-maldikoa, udalak ez baitio kontratua luzatu. Horrenbestez, *belle époque* garaiko zaldiko-maldiko bakarra geratzen da Donostian, Alderdi Ederrekoa, hain zuzen ere. •





### Igeldo toki entitate txiki bihurtu da

Hilabeteetako itxaronaldiaren ostean, Gipuzkoako Foru Aldundiak onespina eman zion abenduan Igeldoko Herri Kontseiluak eta Donostiako Udalak hartutako erabakiari. Bi erakundeek 2021ean abiatu zuten Igeldo toki entitate txiki bihurtzeko prozesua, eskumen gehiago bereganatu eta tokiko kudeaketa indartu zezan. Igeldotarren %85ek babestu zuten udalaren erabakia, apirilaren 14an egin zuten herri kontsulta. •



### Loiolatarra elkarteak mende bat bete du auzoan

Mende bat bete zuen uztailearen 31n Loiolatarra elkarteak, eta urteurren handi horren harira, liburu bat argitaratu zuten, 100 urte hauetako historia eta bitxikeriak jasotzen dituen. Gaur egun, Loiola auzoko Loiolatarra kaleko 2. zenbakian dute elkarrea, eta 2007tik daude bertan, lehenago, beste lau egoitza izan baititu. 1924ko uztailearen 31n, San Ignazio egunean, inauguratu zuten Loiolatarra elkarteak, auzoko Xamene tabernan. •



### Martuteneko biribilgunea zabaldu dute, berrituta

Biribilgune berriko lanak bukatu dituzte, eta dagoeneko erabilgarri dago. Dena dela, erabiltzaile guztiak ez daude konforme harturiko erabaki batekin. Izan ere, Tranbia kalea noranzko bakarrekoa bihurtu dute bizikletentzat. Behin-behineko biribilguneak bost urte inguru eman ditu Martutene auzoaren mutur batean. Donostiako Udal Gobernuak 2018an aurreikusi zuen berritzea, behin-behinekoa jarri eta gutxira, baina ordutik atzerapen ugari pilatu ditu proiektuak. •



### Suteek kezka sortu dute Parte Zaharreko bizilagunen artean

Parte Zaharreko bizilagunak kezkatuta agertu dira. Senra tabernako sukaldean sute bat piztu zen 2023ko abenduan, eta eraikin horretako bizilagunek etxetik kanpo eman behar izan zituzten hainbat egun. Auzo elkarteak sute asko ditu erregistratuta. Besteak beste, otsailean, Zumelztegi tabernan frijigailu batek hartu zuen su. Auzotarrak kalera atera ziren udalari ikuskapenak egiteko eskatzeko, eta maiatzean, Parte Zaharreko Arrisku Plana aurkeztu zuen udalak. •



### Kristobaldegi komentua auzoaren beharretarako nahi dute

Txomiñeneako Lanberri auzo elkarteak Donostiako Udalari eskatu dio urteetan planteatu dituen azpiegitura publikoak behingoz jar ditzala auzoan. Bertan geratzen ziren sei mojek urrian hustu zuten XIX. mendeko Kristobaldegi komentua, eta bide horretan, auzotarrek udalari eskatu zioten eraikina beraien beharretara bideratzeko. *Kristobaldegi Auzoarentzat* kanpaina abiatu zuten bizilagunek, sinadura bilketa batekin. •



### Zaharren egoitzaren aldeko sinadura bilketa egin dute

Duela 50 urte inguru, Ulia-Ategorrietako zaharren egoitza berri zuen Uliako Auzo Elkarteak, auzoari zerbitzua emateko. Orain, ordea, adinekoen egoitza arriskuan dagoela ohartarazi du auzo elkarteak. «Eusko Jaurlaritzak eraikina hustu eta adinekoentzako apartamentuak jarri nahi ditu», adierazi dute. Horren aurrean, auzotarrak mugitzen ari dira, eta sinadura bilketa bat abiatu dute *Change.org* atarian. •



HAPOaren parte hartze prozesuko ekialdeko bilera bat.  BEÑAT PARRA RODRIGUEZ

## HAPO berria helburu, parte hartze prozesua abiatu dute

**D**onostiako hiri antolamenduko plan orokorraren (HAPO) parte hartze prozesuan murgildu da udala, 2024an. Aurrerakinean oinarritutako parte hartze prozesua irailean abiatu arren, udalak aurretik zabaldu zituen gakoetako batzuk. Hain zuzen, aurrerakinean jasotzen den moduan, datozen hamabost urteetan 12.038 etxebizitza eraikitzea aurreikusten du udalak, tartean, Altzako Auditx Akular berdegune handian 3.007 etxebizitza: «HAPO berriak ez du hiri hedapenerako eremu esanguratsu berririk aurreikusiko, Auditx Akular sektorea izan ezik», dio aurrerakinak; hau da, hiria ez dela bere egungo muga urbanizatuetatik harago haziko, Altzako eremu horren salbuespen bakarrarekin.

Txanponaren ifrentzuan, berriz, Antondegiren etorkizuna aldatu da aurten. Altzan aurreikusitakoaren kontra, 2010eko HAPOan jasotzen ziren 3.000 etxeak ez dira jasotzen egungo aurrerakinean. Udalak maiatzean azaldu moduan, Antondegi landa eremu gisa dago izendatuta, eta beraz, ez da ez etxerik, ezta aurreikusita zegoen olatu artifizialik aurreikusten 97 hektareako berdegunerako. Bestalde, GI-20 saihesbidea eraberritzea ere aurreikusten du aurrerakinak, errepideari espazioa kendu eta hiriarrentzat irabazteko.

Planteamendu horiek guztiak, HAPOaren aurrerakinak jasotzen dituen gainerakoekin batera, eztabaida publiko-atera dituzte urtearen azken hiruhilekoan egindako parte hartze prozesuan; hasieran, bilera irekiak eremuka egin dituzte; eta, ondoren, gaika banatu dira. Auditx Akularreko etxebizitza kopuruak eta hiri osoan eraiki

nahi dituzten etxeen erdia inguru ekialdeko auzoetan eraiki nahi izateak harrabotsa sortu du auzo horietan, eta inguruko bizilagunek bilerak zein mobilizazioak egin dituzte.

Aurrerakinean planteatutako edukiek ez ezik, parte hartze prozesuak ere mesfidantza eragin du herritar askorengan, eta zalantzan jarri dute prozesuaren izaera bera: Altxa XXI. salatu du udalarentzat «tramite» bat dela HAPOaren inguruko parte hartze prozesua; Aieteko Lantxabe auzo elkarteak ere kritiko agertu da, esanez udalak herritarren parte hartzeari trabak jarri dizkiola eta Parte Zaharrean Bizi auzo elkarteak HAPOaren parte hartze prozesua «fartsa» bat dela adierazi du, besteak beste.

Mesfidantzaren eta haserrearen artean ere ekarpenak egiten egon dira auzo eta bizilagunen elkarteak. Esaterako, aurrerakinak Bidebietarako proposamen bat bera ere jasotzen ez duen arren, planteamendu ugari landu eta mahaigaineratu ditu Bideak auzo elkarteak, aurretik aipatutako elkarteekin batera.

Proposamen guztien artean, hizpidera ekarri dituzten batzuk dira honakoak: Intxaurren Zaharra eta Intxaurren Hegoa batuko dituen autobus bat, Intxaurren Guardia Zibilaren kuartela auzoarentzat berreskuratzea, Bidebietan kultur etxe bat jartzea, Igarako industria gunea bizitegi auzo bilakatzea, Tolosa hiribidea Infernura eta Añorga Txikira luzatzea, Errondogaina eta Anoeta lotuko dituen funikularra sortzea eta Oriamendi mendien eta Miramongo parkearekin gerriko berdea osatzea, besteak beste. ●

## Etxebizitza proiektu handiak eta beste

**A**sko dira hirian abian diren lanak eta proiektuak, eta horietako batzuk zalaparta sortu duten arren, Donostiako Udalak asmo gehienak aurrera eramatea lortu du 2024an. Besteak beste, udalak hasierako onarpena eman dio Añorgako Geltokiaren azpierzemuan 248 etxebizitza eraikitzearen proiektuari. Errondogainan, luxuzko urbanizazio bat egiteko plan partzialari behin-behineko baiezkioa eman zion azaroan, eta Lorategi Hiriaren lanak ere dezente aurreratu ditu urtean zehar, iaz argi berdea eman ostean.

Illarran ere eraikitzen hasi da udala, auziak epaitegietan jarraitu arren. Azken epaiaren arabera, 105 etxebizitza sozial gehiago eraiki beharko ditu. Ordea, lanak geldiarazi behar izan dituzte Ijentea kaleko luxuzko etxebizitzetan, aurreikusitakoa baino etxebizitza bat gehiago eraikitzeagatik.

Etxebizitza gehiago datoz Loiolako Erriberara eta Morlansera ere. Donostiako Udalak hiru lursail laga



dizkio EAEko Administrazio Orokorrari, 240 zuzkidura etxebizitza sor ditzan.

Bestalde, etxebizitzan ez ezik, bestelakoak ere bideratu ditu udalak: Belartza Goikoa eremua industrialde bihurtzeko plan partzialak hasierako onarpena jaso zuen maiatzean.

## Kuartelen salerosketa «aldi baterako» eten du udalak

Hilabeteak aurrera doaz, eta oraindik argitu gabe dago Loiolako kuartelen salerosketaren afera. Udalak eskriturak ez sinatzea erabaki zuen ekainean, mugatze leerroaren eztabaida argitu arte. Espainiako Gobernuaren Kostaldeko zuzendaritzak dio ehun metrokoa izan behar dela, baina udalak hogeita metrokoa izatea eskatu zion, aurreikusitako 1.500-1.700 etxebizitzak eraikitzeko. Abuztuan, hitzarmena aldi baterako eten zuen udalak, afera «laster» argituko zela baieztatuta. 2024ko abenduan, baina, planak bere horretan jarraitzen du.



**Bihur zaitez AHOBIZI  
HITZEZ Euskaltegian**



**Zorionak eta urte berri on!**

**GROS-en  
ikas ezazu**

📍 Kolon pasealekua, 5 behea, GROS - 20002 DONOSTIA

☎ 943-27 81 55

🌐 [www.hitzez.eus](http://www.hitzez.eus)



## Isuri Gutxiko Eremua sartu da indarrean

**L**egeak ezartzen duen moduan, 50.000 biztanletik gora dituzten udalerrri guztiek Isuri Gutxiko Eremua (IGE) izan beharko dute 2025tik aurrera. Hala izango da Donostiaren kasuan ere.

Dagoeneko planaren lehen fasean murgildu da hiria, eta beraz, 8.000 ibilgailuk galarazita izango dute sarbidea Amara, Erdialdea eta Parte Zaharra hartuko dituen eremura.

Murrizketak bi fasetan aplikatuko dira. Lehen fasea 2025-2027 bitarte izango da, eta ingurumen etiketarik gabeko ibilgailuek sarrera debekatuta izango dute: hala, ezin izango dira sartu 2001 baino lehen matrikulatutako gasolina ibilgailuak, ezta 2006 baino lehenagoko diesel ibilgailuak edo 2006 baino lehenagoko zortzi eserlekutik gorako ibilgailuak eta motoak ere.

Nolanahi ere, salbuespenak ere badaude: eremuko egoiliarren ibilgailu guztiak, langileenak edo mugikortasun arazoak dituzten pertsonenak salbuetsita egongo dira, baita perimetro barruko merkatari eta banaketa enpresako edo zamalanetako langileenak, eta aparkaleku pribaturen bat dutenenak ere. Era berean, IGera sartu ahalko dira taxiak, VTC ibilgailuak eta DGTk historikotzat dituenak.

## Haizearen Orraziko lanek argi berdea lortu dute

**I**txaronaldi luze baten ostean, badirudi tunelaren beste aldean argi izpi batzuk ikusten direla. Haizearen Orrazia birgaitzeko proiektuak urteak daramatza prozesu juridikoetan ktramilatuta, eta, azken urtean, proiektua bideratzeaz zeudela, berriz ere gelditu behar izan dute.

Urrian, obren kontratazio espedientea onartu zuen udalak. Lehiaketa prozesua, baina, aldi baterako eten egin behar izan zuten handik gutxira, Ascongik, Gipuzkoako eraikitzaileen elkarteak, jarritako salaketagatik: elkartea ez zetorren bat udalak lan horiek egiteko eskatu zuen kalifikazio maila altuarekin. C kalifikazioa «gehiegizkoa» iruditu zitzaion elkarteari; udalak, berriz, kalifikazio maila altua defendatu zuen, «artelan» baten egokitzapen lanak zirela defendatuta.

Azkenean, salaketa atzera botatu zuen elkarteak,



eta horri esker, iragarritako epeak bete ahal izango dituela dirudi. Hala, ondo bidean, 2025eko abuzturako berrituko dute eremua. Proiektuak, eremuaren irisgarritasuna egokitzeaz gain, argiztapena hobetzea eta mendi magalaren egonkortasun arazoak behin betiko konpontzea ahalbidetuko du, besteak beste.

## San Bartolome aurrera doa, protesta artean

**D**onostiako Udal Gobernuak San Bartolome birsortzeko planari argi berdea eman dio aurten. San Bartolome muinoa hustu eta barruan merkataritza zentro bat jartzeko lizentzia eman zion New San Bartolome enpresari ekainean, eta, hala, muinoa barrutik hustu eta 8.000 metro koadro eta bost solairu dituen eraikin bat jarriko dute.

Proiektuak zalaparta handia sortu du Erdialdeko eta Amarako bizilagun eta eragileen artean. Urte osoan zehar, bilkurak eta aldarrikapen bateratuak egin dituzte, proiektua geldiarazteko asmoz. Amara Bai, Erdian Bizi, Dendarlean eta Haritzalde elkarteek, gainera, salatu zuten proiektuaren lizentzian «irregulartasunak» zeudela. Era berean, Odon Elorza alkate ohiak gardentasun handiagoa eskatu zuen, eta udal



gobernuak planteatutako merkataritza zentroaren ordez, Erdialdeko muinoa hiri parke bat bihurtzea.

Proiektuak, baina, aurrera egin du, kritiken eta protesten artean. Enpresak urtea amaitu baino lehen abiatu nahi zituen lanak, eraikina 2027aren amaieran amaitu, eta merkataritza gunea 2028aren hasierarako irekitzeko.



## Zaratak eta arazoak ekarri dituzte GOe-ren lanek

2024an, GOe-ren lanekin aritu dira buru-belarri. Eremuaren itxuraldaketa urtarilean hasi zen, hemezortzi zuhaitzen mozketarekin. Ulia auzo elkarteak manifestazio jendetsua egin zuen orduan, eta udalbatzarrera ere jo zuten. Martxoan, Facuak GOe-ren aurkako salaketa jarri zuen Eusko Jaurlaritzan, lanak «bete beharreko baldintzak bete gabe» egiten ari zirela baieztatuta. Manteoko ikasleen gurasoak ere mobilizatzen hasi ziren orduan, zarataren aurkako babes neurriak eskatzeko.



**HERRI AMETSA  
IKASTOLA**

[www.herriametsa.eus](http://www.herriametsa.eus)

**DONOSTIA 943 39 35 20**

Ikastola txikia  
Familia handia





## Hiria Tentsio Handiko Eremu izendatzeko eskatu dio udalak Jaurlaritzari

Udal gobernua eskaera ofiziala egin du: Jaurlaritzari eskatu dio hiria, bere osotasunean, tentsio handiko eremu izendatu dezala. Izendapen horren bitartez, udalak ohiko etxebizitzarako alokairuaren prezioen arautzea du helburu, eta, batik bat, azken urteotan areagotu diren alokairu igoerak ekiditea. Udaletik argi utzi dute, baina, legediaren bitartez soilik, ezin izango zaiola aurre egin etxebizitzaren aferari. Ondo bidean, 2025eko lehen hilabeteetan indarrean sartzea aurreikusten dute.

## Haize berriak iritsi dira Bretxara

Bretxako merkataritza gunearen kudeaketa udalaren eskuetara igaro zen uztailen. Ordura arte, Baika enpresa pribatuak kudeatzen zuen, baina kontratua bete ez zuten, EAJk, PSE-EEK eta EH Bilduk indarrak batu zituzten, emakida bertan behera uzteko. Udalak, gainera, 2,5 milioi euroko kalte ordaina eskatu dio Baika enpresari. Aldaketok, ordea, ez dira eremuko bakarrak izan aurten: Parte Zaharreko osasun zentro berria inauguratu zuten otsailen Arrandegi eraikinean, baita kirol pistak ere.



### Parte Zaharrean lizentziarik gabeko obrak salatu dituzte

Udalaren eta aldundiaren esku hartze faltaren eta ostalaritza establezimendu batzuen gehiegikerien aurrean, Parte Zaharrean Bizi auzo elkarteak Arartekora jo zuen, Parte Zaharrean lizentziarik gabeko obrak egiten zirela salatzen. Arartekoak arrazoia eman zion elkarteari eta zenbait «jarduketa klandestino» atzera botatzeko gomendatu zion udalari. Eneko Goia alkateak esan zuen gomendioak betetzen saiatuko zirela.



### Sorlekuko parkea defendatu dute

Sorleku parkearen etorkizuna aurreikusitako iturrira bueltatu dela dirudi. Parkearen egitasmoa 2017an jarri zuten abian partaidetza prozesu baten bitartez. Urrian, ordea, udalak leku horretan disuasio aparkaleku bat egiteko asmoak iragarri zituen, eta orduan piztu ziren alarma guztiak. Protesta artean, udal talde guztiek parkearen kokalekua berretsi zuten hil horretako udalbatzarrean, PSE-EEK izan ezik. Herritarrek, baina, kezkatuta jarraitzen dute.



### Biribilguneko lanek hankaz gora jarri dute auzoa

Anoetako topo geltokiaren sarrera berria eraikitzeko lanek buruhauste ugari sortu dituzte Amara Berrin. Aita Donostia biribilguneko trafikoa nabarmen mugatuta, bizilagunak kezu dira urteetako plana izan arren, ez direlako nahikoa neurri aurrekusi trafikoa bideratzeko. Horren arduradunak topatzea ere ez dago batere argi; erantzukizunaren pilota udalaren eta Eusko Jaurlaritzaren teiltuen artean aritu da bueltaka.

## Norteko geltokiak markesina berreskuratu du

Atotxako tren geltokiak markesinaren egitura berreskuratu du. 2023ko otsaila eta martxoa artean desmuntatu zuten, bidaiarien eraikina bota aurretik. Al-diz, urte hartako ekaina bukaeran eraman zuten Asturiasera, hango enpresa batek birgaitu zezan. Hainbat hilabetetako lanaren ondoren, azaroan ekarri zuten markesina Donostiara bueltan. Euskal Trenbide Sarearen arabera, obrak bukatzeko beste urtebete beharko da, eta 2025ko abendurako prest egotea aurreikusten dute.



## Dbusek elektrifikaziorako bidea abiatu du

Dbuseko kotxetegiak elektrifikatzeko lanak amaitu dituzte abenduan. Hala, modu mailakatuan, autobus flota erabat elektrifikatuko du 2030rako. Datozen sei urteetarako egindako Bideberdea planaren barruan egindako aldaketok, baina, ez dira bakarrak izan aurtien: Atotzarrekako eta Itsasargiaren pasealekuko taxibusak jarri zuten erabilgarri irailean. Era berean, 2023an, hiriko hamabi lineatan egindako aldaketek protestak eragin ditu hainbat auzotan.

## Pertsianak jaitsi dituzte behin betiko

2024an ere, ez dira gutxi izan hiriari agur esan dioten saltoki eta tabernak. Zerrenda horren barruan daude Sustrai belar denda, Almacenes Arenzana, Ijentea kafetegia, Tanger taberna, Solbes dendak, Look Boutique denda, Xarma jatetxea, Cristina Oria kafetegia, Esparru taberna eta Olaeta kafetegia. Era berean, Ezkurra tabernak etapa itxi eta berri bat ireki du, Gloria kalera egindako lekualdaketarekin. Tabernak eta saltokiak ez ezik, izan dira bestelako itxierak ere: Scientia Karmelo ikastetxeak agur esan zuen ekainean.



**Euskara eroso bizitzeko**

**aek**  
euskara praktikoa

**DONOSTIA**

**EUSKARA -IKASTAROAK**

**Antiguako AEK** · Erregezain, 22  
943 21 80 88 · [antigua@aek.eus](mailto:antigua@aek.eus)

**Amara Berri AEK** · Ordoñez 7 (ARCCO parean)  
943 47 45 92 · [amara@aek.eus](mailto:amara@aek.eus)

**Grosetako Irrintzi AEK** · Iztueta 3, behea  
943 32 76 11 · [gros@aek.eus](mailto:gros@aek.eus)

# Hauteskunde emaitzak Donostian: EAJ legebiltzarrekoetan eta PSOE Europakoetan



**B**i hauteskundetan botoa emateko aukera izan zuten donostiarrek 2024an: Eusko Legebiltzarrekoetan apirilaren 21ean eta Europako Parlamentukoetan ekainaren 9an.

Legebiltzarrekoetan, EAJ izan zen garaile, 28.184 botorekin, eta gertu izan zuen EH Bildu, 27.363rekin. Jeltzaleek 2020an baino 1.000 boto inguru gutxiago eskuratu zituzten, eta koalizioak, aldiz, 8.000 boto inguru gehiago. Gaiak nazionalistetatik urrun gelditu ziren: PSE-EEK 14.725 boto eskuratu zituen, PPK 11.297, Sumarrek 3.563, Elkarrekin Podemosek 2.035, Voxek 1.896, PACMAk 605, Aulki Zuriak-ek 436, Izanek 187 eta Bidezko Mundurantz 143. Legebiltzarrean, EH Bilduk eta EAJk 27na eserleku dituzte; PSE-EEK, 12; PPK, 7; Voxek 1 eta Sumarrek 1.

Europako hauteskundeetara dagokienez, bestelakoak izan ziren emaitzak, PSOEk irabazi baitzuen, 20.954 botorekin. Atzetik izan zituen alderdi hauek: EH Bilduren Orain Errepublikak (18.184), EAJren CEUS (13.560), PP (11.540), Podemos (2.829), Sumar (2.817) Vox (2.345), Bukatu Da Festa (1.508), PACMA (481), Iustitia Europea (223) eta Frente Obrero (214).

## Aldaketak PSE-EEren udal taldean

Martxoan, PSE-EEren bozeramaile Marisol Garmendiak Espainiako Gobernuaren EAEko ordezkari hartu zuen, bere zinegotzi kargua utziz. Horrela, Ane Oiarbide da orain taldearen bozeramaile eta bigarren alkateordea. Bestalde, Garmendiaren hutsunea Juantxo Marrerok bete zuen. Horrez gain, Cristina Lage zinegotzi sozialistak udala utzi zuen irailean, Kataluniako Generalitateko Turismo zuzendaria izateko; Iñigo Garcia sartu zen bere ordez udal taldean.



## Gorakada erreakzionarioari «ideologikoki, politikoki eta kalean aurre egitera» deitu du EHKSk

Europar eta Euskal Herrian nabarmentzen ari diren diskurtso arrazista, misogino eta homofoboek Donostian bere oihartzuna dute. Joera erreakzionario horren aurrean, Euskal Herriko Kontseilu Sozialistak aurrerapauso garrantzitsua eman zuen azaroan, Egian ekitaldi jendetsua eginez. Sozialdemokrazia alternatibak eskaintzeko «ezgai» dela nabarmendu, eta faxismo berria ideologikoki, politikoki eta kaleetan borrokatzeko deia egin zuten, «klase batasunera» deitzearekin batera.



# La Cumbre memoria gune izateko proiektua, mahai gainean

**A**ieteko La Cumbre jauregiaren aferan aurre-rapauso batzuk ematen hasi dira. Abuztuaren jakin zenez, Donostiako Udalak bidali zion Espainiako Gobernuako Memoria Demokratikorako Estatu Idazkaritzari eraikin hori memoria demokratikorako gune bihurtzeko proposamenaren zirriborroa. Gogoratu behar da Joxean Lasa eta Joxi Zabala bertan torturatu zituztela 1983an, eta, EH Bilduren eta Espainiako Gobernuaren arteko akordioaren arabera, 2023ko urrian pasatu behar zela udalaren eskuetara, bertan memoria gune bat sortzeko.

Oraindik ez da halakorik egin, baina badago proiektu bat mahai gainean. Hain zuzen ere, Aranzadi Zientzia Elkarteak, Argituz elkarteak, Altzako Mikel Zabalza Herri



Ekimenak, Berridatzi elkarteak, Egiari Zor fundazioak eta Joxean Lasa eta Joxi Zabalaren senideek elkar-lanean idatzitako proiektua aurkeztu zuten urrian. Jauregia «ikerketarako, biktimen aitortzarako eta errepaziorako eta, batez ere, dibulgaziorako gune irekia» izatea da xedea.



## Frankistak oroitzeko eskatu du PPK, baina bakarrik gelditu da

Harrabotsa sortu zuen irailean PPK udalean egindako eskaerak: frankismoaren biktimak omentzeko *Dual* eskulturaren 36ko gerrako «biktima guztiak» gehitzea edo, bestela, berau erretiratzea. Intelektual eskuindar batzuen uztaileko gutunean oinarrituta egin zuten eskaera, 1936ko uztailearen 18tik aurrerako biktimak ere (kolpistak batez ere, beraz) aintzat hartzeko eskatzen zuena. Hala ere, eskaera atzera bota zuten gainontzeko lau udal taldeek.

**LANGILEEN ALDE**  
lan eta bizitza duinak  
hemen erabaki

DONOSTIA. San Blas Kalea 1, 20013 Donostia  
Tlf. 943 458 640



www.lab.eus  
(langileen-alde-berri-erabakia)



## Indarkeria politikoaren biktimak kalean ikusarazten jarraitzen dute

**D**uela bi legegintzaldi abiatutako egitasmoari jarraiki, oinarri politikoko indarkeriaren biktimak Donostiako kaleetan ikusarazteko hainbat plaka jarri ditu udalak 2024an. Zehazki, plakak jartzeko bost ekitaldi egin dituzte, horietako lau ETaren biktimen omenezkoak: Polizia Armatuko kide Manuel Orcera de la Cruzena ekainean, Antonio Pastor eta Moises Cordero guardia zibilena irailean, Lorenzo Motos armadako teniente koronelarena urrian eta *El Diario Vasco*-ko finantza zuzendari Santiago Oleagarena azaroan. Bestalde, Guardia Zibilak 1985ean torturapean hildako Mikel Zabalza Altzako bizilagun orbaizetarraren omenezko plaka jarri zuten urrian, Intxaurrendoko kuartelaren aurrean. Udalaren eraba-



kiaren aurka agertu ziren PP, AVT eta DyJ, baina plaka Intxaurrendon dago.

Memoriarekin lotuta, nabarmentzekoa da udalak apirilean berrezarri behar izan zuela Saguesen Espainiako II. Errepublikaren defentsan fusilatutako eta errepresaliatutako omenezko plaka. 2011n gertatu zen moduan, norbaitek lapurtu egin zuelako berrezarri zuten udalak.

## 50 urte Guardia Zibilak Mikel Salegi tirokatuta hil zuenetik

Abenduaren 18an, 50 urte bete ziren Guardia Zibilak hemezortzi tiro jota hil zuenetik Mikel Salegi gaztea, Errekaldeko errepide kontrol batean; ondoren, hiletan, bertaratutakoak jipoituak izan ziren. Senideek ez dute egiarik, justiziarik eta erreparaziorik jaso mende erdi honetan; are, oztopoak izan dira nagusi beraiantzat. Urteurrenarekin bat eginez eta Salegiren senideen ekimenez, Javier Bucos historialariak liburu batean jaso du gaztearen historia.



**Urte berri on!**

Gabriel Aresti, 165, 20015 Donostia  
943-89 95 16 - 012958aa@hezkuntza.net

**Urrats**  
euskaltegia

www.urrats.eus 943-46 55 93 Karlos I.a, 10 - Donostia

# Sei euskal preso donostiarri eragingo die 7/2014 legearen erreformak

**A**lderdi Popularra saiatu zen oztopoak jartzen, baina aurrera egin zuen urrian 7/2014 lege organikoaren reforma. Horren bidez, amaiera emango zaio euskal presoei ezarritako salbuespen lege bati, Frantziako Estatuan betetako espetxe zigor urteak Espainiako Estatuan ez zenbatzearenari, hain zuzen ere. Europako Batasuneko zuzentzura egokitzea da erreformaren xedea. Horrela, Sare Herritarraren arabera, 52 euskal presori eragingo die erreformak eta zazpik aske gelditu beharko lukete lehenbailehen. Horietatik, sei dira donostiarrak.

Bestalde, datu orokorrak gogoratzearen, Etxerat elkartearen datuen arabera, hamahiru dira guztira zigorrak betetzen jarraitzen duten euskal preso donos-



tiarrak. Horietatik, sei Martuteneko espetxean daude, lau Zaballakoan (Araba), bat Basaurikoan (Bizkaia) eta bi etxean daude preso.



## Militantzia politikoaren aurkako zenbait errepresio kasu Donostian

Eusko Jaurlaritzako Segurtasun Sailak Ernaiko 133 kide salatu zituen 2024an *mozal legea*-ren bidez, tartean bost donostiar. 290.500 euro eskatzen zizkieten isunetan, baina epaitegiak isunak indargabetzen eta arintzen hasi dira. Aske antolakundeko 128 kideri ere aplikatu diete lege hori aplikatu zieten 2024an, tartean hamabost donostiarri, isunetan 153.600 euro eskatuz. Alde Zaharreko Gazte Asanbladak, bestalde, uztailean salatu zuen Udaltzaingoak auzoko hainbat gazte «jipoitu eta zauritu» zituela.

**www.jobilan.eus**

**Teilatuak.**  
**Fatxadan isolamendu termikoa...**  
**Pintura barnean eta kanpoaldean.**  
**Lan koordinaketak.**

**620-70 69 36**

Txirrita Bertsolaria, 21 · Altza · Donostia · info@jobilan.com

**Triku Harri**  
 taberna *Sj*jatetxea

Matia Kalea 35, Antigua  
 www.trikuharrijatetxea.com




## Alaia Martin txapeldun, eta Beñat Gaztelumendi txapeldunorde

Gipuzkoako Bertsolaritza Txapelketaren final handia abenduaren 14an jokatu zen, eta Alaia Martinek jantzi zuen txapela. Harekin batera sailkatu zen buruz burukora Beñat Gaztelumendi donostiarra, baina oiartzuarrak 45 puntu gehiago egin zituen. 2015eko eta 2019ko txapelketak irabazi ostean, txapeldunorde izatearekin konformatu behar izan zen, hirugarrenez. Hain zuzen ere, Martin eta Gaztelumendi parez pare aritu ziren 2015eko finalean, baina orduan donostiarra izan zen garaile.

## Eduardo Txillida jaio zeneko mendeurrena

100 urte bete dira Eduardo Txillida eskultore donostiarra jaio zenetik, eta haren omenez, ekitaldi ugari egin ditu Eduardo Txillida-Pilar Belzunce fundazioak. Txillidaren obra Euskal Herrian eta nazioartean ezagutaraztea eta zabaltzea izan dute helburu. Horretarako, erakusketak, argitalpenak, ikus-entzunezkoak, hezkuntza proiektuak eta beste egin dituzte. Topaleku lelopean ospatu dute mendeurrena.



## Anoeta futbol zelaia kontzertu handietarako berreskuratu dute

Zortzi urte luzeren ondoren, kontzertu esanguratsu bat antolatu zuten Anoetan, pasa den ekainean. Alemaniako Rammstein taldeak emanaldi sutua eskaini zuen futbol zelaian. 1994tik 2024ra bitartean antolatu den hamabigarrena izan zen, eta, horrela, iraganeko izaera berreskuratu zuen estadioak. Gainera, beste lau daude aurreikusita 2025erako: Fermin Muguruza (ekainak 14), Bruce Springsteen and The E Street Band (ekainak 21 eta 24) eta baieztatzea falta den beste bat.

## Iñaki Beobide, Juan Luis Goenaga, Paula Martel eta Patri Urkizu zendu dira

Urtarrilaren 14an hil zen Iñaki Beobide kulturgilea, 89 urterekin. Jarrai antzerki taldearen eta Herri Gogoia zigiluaren sortzailea izan zen, besteak beste. Zumaiakoa izan arren, bizitzaren gehiengoa Donostian egin zuen. Abuztuaren 13an zendu zen Juan Luis Goenaga margolari donostiarra, 74 urte zituela. Irailaren 30ean hil zen Maria del Carmen Perez Otxoa *Paula Martel* aktore donostiarra, 79 urterekin. Madrilgo antzokietan oso ezaguna izan zen, batez ere, 1960ko eta 1970eko hamarkadetan. Abenduaren 18an zendu zen Patri Urkizu idazlea, irakaslea eta ikertzailea, 78 urte zituela. Lezon jaio zen, baina Donostian bizi zen 1983az geroztik.



## La Oreja de Van Gogh eta Leire Martinez banandu egin dira

Donostiako La Oreja de Van Gogh pop taldeak urrian iragarri zuen Leire Martinez abeslariaren agurra. Sare sozialetan ohar bat zabaldu zuten albistearen berri emateko: «Musikaz eta emozioz beteriko 17 urte zoragarriren ondoren, Leireren eta La Oreja de Van Goghen ibilbide profesionalak bide ezberdinak jarraituko dituztela iragarri nahi dugu». Leire Martinezek 2008tik zeraman La Oreja de Van Gogh taldean. Amaia Montero ordezkatzera sartu zen orduan, *Factor X* telebista saiotik igaro ondotik.



## Urte emankorra izan da hiriko kultur sortzaileentzat

Donostiako musikagintza eta literaturgintza oparoa izan da 2024an. Musikari dagokiez, talde eta bakarlari hauek argitaratu dituzte lan berriak, besteak beste: Pelax, Neu Troia, Ancient Settlers, Legacy of the Seas, Bele, Nakar, Nuria Culla, Zeba, Lie Detectors, Iker Munduate, Marte Lasarte, Trukean, Soka, Mark Duti, Nokono, Sara Mansilla, Olatz Salvador, La Txama eta Asgarth. Literaturaren kasuan, idazle hauek plazaratu dituzte liburu berriak, besteak beste: Ander Izagirre, Beñat Sarasola eta Itxaso Martin. Zinemagintzaren alorrean, aipatzekoak dira Negu Kolektiboaren *Negu hurbilak*, Pello Gutierrez zinemagilearen *Erreplika* eta Moriarti ekoiztetxearen *Marco* filmak.

## 25 urte bete ditu Kursaalak

Kursaalak 25. urteurrena ospatu du aurten. 1999an inauguratu zenetik, ekitaldi ugariaren lekuko izan da Kursaal, baita nazioarteko kongresu eta topaketa kulturalen gune nagusietako bat ere. Hamar milioi pertsona baino gehiagoren bisita jaso du, 6.700 ekitalditan eta %78ko edukiera mailarekin. 25 urtetako datuak banakatuta, 3.686 bilera egin dira (kongresuak, biltzarrak, jardunaldiak, azokak, eta abar), eta 3.014 ikuskizun izan dira bertan, guztira.





**OLIYOS**  
TABERNA · JATETXEA

**Ondo igaro jaiak!**

Josefxo      Erregezaintza 4,  
DONOSTIA

Irurtia Balerdi      Tel.: 943-21 49 89

Tel.: 943-27 97 96  
Bazkariak






## Donostia Arraun Lagunak-ek jokoan zuen guztia irabazi du

Urte borobila izan da Donostia Arraun Lagunak-entzat. Jokaturiko bandera guztiak astindu ditu Lugañenea traineruak, eta agerian geratu da Kantauri itsasoko trainerurik onena izan dela. Kontxako Bandera hirugarrenez irabaztearekin batera, Euskotren liga eta Gipuzkoako, Euskadiko eta Espainiako traineru txapelketak ere eskuratu dituzte. Emakumezkoen arraunaren historian, lehen aldia da klub batek dena irabazten duela.

## Donostiarrek lau domina eskuratu dituzte Parisko Jokoetan

Udan izan ziren Parisko Olinpiar eta Paralinpiar Jokoak, eta hainbat kirolari donostiarrek parte hartu zuten. Domina, berriz, hiruk eskuratu zuten. Pau Etxaniz piraguitak brontzea irabazi zuen Olinpiar Jokoetako K1 modalitateko finalean. Iñigo Llopis igerilariak, berriz, urrea lortu zuen Paralinpiar Jokoetako S8 bizkarreko 100 metroko proban, eta brontzezko domina estiloetako 4x100 metrokoan. Azkenik, Ander Cepas mahai teniseko jokalaria brontzea irabazi zuen banakako lehiak.



## Bera Berak denboraldiko hiru tituluak altxatzea lortu du

Aurten jokaturiko final guztiak irabazi ditu Bera Bera eskubaloi taldeak. 2023-2024ko denboraldiari bukaera ezin hobea eman diote liga, kopa eta superkopa irabazita. Laugarren aldia da hiru tituluak sasoi berean irabazten dituztela, eta hori talde oso gutxik lortu dute. Dena dela, ez dira horrekin konformatu. 2024-2025ko sasoi bide beretik hasi zutelako irailan, Superkopa Iberiarra irabazita. Gainera, Europa ligako multzoen ligaxkara sailkatu ziren azaroan. Lorpenen zerrendak ez du etenik.


## Gipuzkoako txirrindularitzaren egoera konpondu nahian dabilta

Txirrindularitzak egoera zaila bizi du Gipuzkoan, lasterketak berme guztiakin antolatzeko trabak baino ez daudelako. Hori dela eta, urriaren 13an, *Konponbidea!* lelopean, manifestazio jendetsua egin zuten Donostian. Ehunka ziklistek lasterketak «normaltasunez» antolatzeko aukera eskatu zuten. Horrez gain, urrian bertan, Gipuzkoako Foru Aldundiak Gipuzkoako Txirrindularitza Federazioaren gidaritza hartu zuen; batez ere, antolatzen diren proba gehienak aurrera atera ahal izateko.



## Realeko neskek Espainiako Kopako txapelkunorde, eta mutilak Europara

Espainiako Kopa bigarren bezala irabazteko aukera izan zuten Realeko neskek maiatzaren 12an, baina finala galdu zuten Bartzelona indartsuaren aurka (8-0). Horrela, ezin izan zuten 2019ko balentria errepikatu. Txapelketa ona jokatu arren, areririk zailena egokitu zitzaizen finalean. Mutilen taldeak, berriz, historia egin zuten bosgarren urtez jarraian Europarako sailkatuta. Zehazki, Europa liga berriturako txartela eskuratu zuten. Bestalde, Espainiako Kopako finalerdietara iritsi zen taldea, eta Txapelkunen Ligako final-zortzirenetara.



## Txuri Urdineko neskek bigarren bezala irabazi dute liga

Duela bi urte egindako balentria errepikatu zuten Txuri Urdineko neskek, pasa den martxoan. Majadahonda finalean menderatu eta beraien historiako bigarren liga eskuratu zuten. Donostian lehenengo bi partidak irabazi ostean (3-2 eta 2-0), beste bi partida jokatu behar zituzten Majadahondan, baina nahikoa izan zen bakarrik jokatzearekin. Izan ere, 0-2 irabazi zuten donostiarrek, eta talde madrildarra finalari buelta emateko aukerarik gabe utzi zuten.

## 50 urte bete ditu Askatuak saskibaloia taldeak

1975ean sortu zutenetik, Donostian eta Gipuzkoan saskibaloia etengabe sustatzen ari dira. Jose Antonio Gaska eta Iñaki Almandoz izan ziren sortzaileak, beste hainbat kiderekin batera. Klubak 1975-1976ko denboraldian egin zuen debuta, eta hurrengo urteak izan ziren loriatsuenak. Gaska 1982an zendu zen, baina Almandozek presidente gisa jarraitu du ordutik gaur egun arte. 50. urteurrena ospatzeko, hainbat partida eta ekitaldi antolatu dituzte.



**MariaReinaEskola**  
Hegan egiteko hezkuntza eta hegoak.

**ATE IREKIAK  
URTARILETIK AURRERA**

**Urte berri on!**

Ametzagaña 58 • Egia • 20012 • Donostia  
T 943 27 15 96 / mariareinaeskola.com

**LAIA**  
ABOKATUAK

Tel.: 943-42 92 27 / 688-61 35 30  
Mundaiz bidea, 10, 24A, 20012 Donostia

# Irutxuloko Hitzak 20 urte



Harpidetu eta lortu  
2025eko agenda

[Irutxulo.hitza.eus](http://Irutxulo.hitza.eus)